

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko urriaren 17a. IX. urtea. 2.417. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Otamendi: «Espainiarentzat merkeagoa da isuna ordaintzea ikertzea baino»

Estrasburgok Espainia kondenatu du 'Euskaldunon Egunkaria'ko zuzendari ohiaren tortura salaketa ez ikertzeagatik **02**

## Eskualdeko bost begirada Aieteko Adierazpenari

Donostiako Nazioarteko konferentzian adostutako adierazpenak urtebete betetzen du gaur, eta hainbat iritzi bildu ditu HITZAK **05**

## SOS Haur Lapurtuak taldeak kasuak artxibatzeko arriskua dagoela uste du

Salaketa jarriko diote Espainiako Gobernuari, Argentinatik **07**

## Kontzertua eta afaria, Alegiako Txintzarri Eguna ospatzeko, larunbatean

Txintzarri eta Txintzarri Txikiren emanaldia, 19:45ean izango da **04**



L. TERROLDIS

→ **Gazteentzako etxebizitzak, ia prest.** Hilabete eta erdi besterik ez da falta Ibarako Beheko Biden egiten ari diren erabilera anitzeko eraikina bukatzeko, baina udala hasi da jada, gazteei zuzendutako etxebizitzaren esleipena prestatzen. Interesa duten 18 eta 35 urte arteko gazteek, galdetegi bat bete behar dute. **06**

EZ GALDU  
EHBilduko Marian Beitialarrangoitia eta EAJko Maria Eugenia Arrizabalagaren arteko  
**buruz burukoa**

**GAUR**

19:00etan

Tolosako udaletxeko batzar aretoan

\*jarraitu zuzenean: [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info) webgunean



Antolatzaileak:

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO hitza info



# Espainia kondenatu dute tortura salaketak ez ikertzeagatik

Martxelo Otamendik eskerrak eman dizkie 'Egunkaria' ren itxieran eta tortura salaketan babesa eman dietenei

**I. Urkizu** Tolosa

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak Espainia kondenatu du Martxelo Otamendi *Euskaldunon Egunkaria*ko zuzendari ohia- ren tortura salaketak behar beza- la ez ikertzeagatik.

Giza Eskubideen Konbentzioa- ren 3. artikulua urratu duela dio ebazpenak, eta Otamendi tolosa- rren argudioak ontzat eman ditu auzitegiak; torturak eragin- kortasunez ez ikertzeagatik eta ikertzeko bitartekorik ez jartze- agatik zigortu du Espainia. Horre- la beraz, 24.000 euroko ordainsa- ria ematera zigortu du: 20.000 kal- teengatik eta 4.000 auziaren kostuengatik.

Ebazpena «albiste ona» dela esan zuen Martxelo Otamendik, atzo, auzitegiaren ebazpena eza- gutu bezain laster, eta bide horre- tan, eskerrak ere eman zituen TO- LOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariari egindako adierazpe- netan. *Egunkaria* auzian tortura- tu zuten atxilotu bakarra bera ez zela izan gogora ekarri zuen hala- ber, Iñaki Uri, Joan Mari Torreal- dai, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Pello Zubiriaren ize- nak nabarmenduz.

**Bideak agortu eta Estrasburgora** Martxelo Otamendi *Berriako* zu- zendariak, eta *Euskaldunon Egunkaria*ko zuzendari ohiak, Espainiako auzitegietak bide guztiak agortu ondoren, 2008an jo zuen Estrasburgora torturen in- guruko argudioarekin.

2003an *Egunkaria*ren aurkako operazioan, Guardia Zibilaren esku atxilotuta egon zen, eta or- duan jasandako torturak eragin- kortasunez ez ikertzeagatik, eta ikertzeko bitartekorik ez jartze- agatik sartu zuen parte Espainia- ren kontra.

Giza Eskubideak eta Oinarri- ko Askatasunak Babesteko Euro- pakoko Hitzarmenaren 3. artikulua urratu izana egotzi zion Otamendik Espainiari, eta artikulua hori urratzea leporatu diote epaileek.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)



2010eko otsailen Tolosan egindako Egunkaria Eguna. N. LATABURU

**Martxelo Otamendi** • 'BERRIA' egunkariko zuzendaria

## «Espainiarentzat merkeagoa da isun hori ordaintzea»

**I. Urkizu**

Epaiarekin gustura azaldu da tolosarra, baina gogora ekarri nahi izan du, berarekin batera *Egunkaria* auzian beste hainbat lagun ere torturatu zituztela.

Bide beretik, eskerrak eman nahi izan dizkie *Egunkaria* auzian nahiz tortura salaketetan babesa eman dieten tolosar eta eskualdeko biztanleei.

**Epaiarekin gustura azaldu zara. Zer nabarmenduko zenuke?**

Pozik nago erabakiarekin, tortura salaketa ez ikertzen, badakitelako torturatu egin gintuztela. Orduan, Espainiako justiziaren- tzat merkeagoa da Estrasburgok jartzen duen isun hori ordaintzea, gure torturatzaileak ikertu eta, ondorioz, kartzelara bidaltzea baino. Beraz, arrazoia ema-

ten digu guri gure salaketan, eta gogora ekarri nahi dut ni ez naize- la torturatu bakarra *Egunkaria* auzian, beste torturatu batzuk ere izan zirela: Iñaki Uri, Joan Mari Torrealdai, Txema Auzmendi, Xabier Oleaga eta Pello Zubiria. Eta zoritxarrez, Euskal Herri- rian torturatu asko izan diren arren, oso gutxi iristen dira horre- lako sententzia batera.

**Ebazpenak bide eman diezaioke torturatzaileak ikertzeari?**

Beste egoera politiko batzuetan, urte asko pasa eta gero, tortura ikerketa asko zabaldu egin izan dira, eta gaur egun, oraindik jende asko dago kartzelan. Hemen ere posible izan beharko luke noizbait ikerketa horiek irekitzea, baina oraingo ezin da.

**Europako beste hedabide batzuetan oihartzunik izan al du honek?**

*Euskaldunon Egunkaria*ren itxierak, bere garaian, oihartzun

handia izan zuen, euskaraz argi- taratzen zen egunkari bakarra itxi zutelako. Baina oraingoan, Herrialde Katalanetako egunkari batzuetan oihartzunik izango du, eta Espainiako batzuetan ere bai, baina Frantzia eta Ingalate- rraoetan zaila izango dela pen- tsatzen dut.

**Urte hauetan guztietan gizarteak emandako babesa garrantzitsua izan da?**

Bai, noski. Eskerrak eman nahi dizkiet, Tolosaldean *Egunkaria* ren itxieraren kontra mugitu zi- ren guztiei, eta babesa eman ziguten guztiei. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet, guk torturak salatuta genituen, alde batetik sinesgarritasuna eman zigutenei, sinetsi zigutenei, eta salaketa horretan beti ondoan, haien el- kartasuna adieraziz, izan ditugu- nei.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Aldundiari utzi dizkiote buruko gaixotasunak dituztenentzako etxeak

Guztienak diren eremuetako obrak eta mantenua Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu

**I. Urkizu**

Buruko gaixotasunak dituztenen zaintzari zuzendutako hiru etxe- bizitzak, Gipuzkoako Foru Aldundiari utztearabaki du Tolosa- ko Udalak, hogeituzterako.

Pasa den otsailaren 1ean, To- losako Udalak eta Eusko Jaurlari- tzako Etxebizitza Sailak, Uzturre kaleko 25. zenbakiko hiru etxebi- zitzen salerosketa kontratua si- natu zuen, gaixotasun mentala duten pertsonen, egun osoan To- losan eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko helburuz.

Horrela beraz, udalak hiru etxebizitza horiek buruko gaixo- tasunak dituzten pertsonentzako etxebizitza tutelatu moduan era- biltzeko eskumena du orain, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari do- hainik utztearabaki du, hogeituz- terako.

Horretarako, alde biko hitzar- mena sinatu beharko dute To- losako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako De- partamentuak. Hitzarmena sina- tzeko baldintza. Eremu komuneta egin beharreko obrak, aldeka- tak nahiz mantenua Foru Aldundiaren esku geratzea izan- go da hitzarmeneko baldintza.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## Elikagaien manipulazailer txartela eskuratzeko ikastaroa

**I. Urkizu**

Elikagaiak nola erabili behar di- ren irakatsi, eta hori berresten duen txartela eskuratzeko ikasta- roa antolatuta du Tolosaldean Ikastn-ek, datorren urriaren 22 eta 23rako. 16:00etatik 19:30era izango dira saioak, eta izen-emate epea zabalik da jada.

Alde batetik, etorkizunearn txartel horrek beharra izango du- tenei zuzenduak dira saioak, lan- gileei lehenitasuna emanez. Bes- talde, Tolosaldeko saltoki, taber- na eta jatetxeetako jabe eta langileei begirako ikastaroa da.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### LAN ESKAINTZAK

■ **Gidariak.** B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gabilta. Interesa duen edonork dei dezala honako telefono zenbakira: 654 05 17 78.

■ **Mantenuko pertsonala.**

Obra publiko nahiz zerbitzu orokorretarako langile bila gabilta. Interesa duen edonork,

dei dezala honako telefono zenbakira: 654 05 17 78.

### LANGILEAK

■ **Etxeko lanetarako.** Etxeko lan- ak egiteko nahiz haurrak zain- tzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Inter- esa dutenek, dei dezatela 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 te- lefono zenbakietara.

**Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak** →**Oscar Renedo** ▶ PSE-EEren Tolosaldeko idazkari nagusia

Krisiari aurre egitea da Renedok hurrengo legealdirako mahai gainean jartzen duen lehentasuna. Euskararen gaiari helduta, PSE-EE ez dela behin ere hizkuntzaren aurka egongo, baina ez dutela «inposaketarik» egiten esan du.

# «Subiranotasunari buruzko eztabaidak artifizialak iruditzen zaizkit»

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Oscar Renedok (Burgos, Espainia, 1962) 36 urte daramatza Tolosan. PSE-EEren Tolosaldeko idazkari nagusia da eta Gipuzkoako zuzendaritzako kidea.

## Zure alderdia Eusko Jaurlaritzan egon deneko azken legealdian buruz zer balantze egiten duzu?

Gutziz positiboa. Datuak ikusi besterik ez da egin behar, hau da, nola dagoen Euskadi eta nola dagoen Estatuaren gainontzekoa. Langabezi tasa txikiena duen erkidegoa gara, enplegua gutxien deuseztatu duena, egoera ekonomiko hoberean dagoena... Hau guztia ikustean, noski, gobernuak parte hartzea izango zuen horretan. Kataluniak, esaterako, erreskatea eskatu dio gobernu zentralari. Hemen krisiari modu egokian egin zaio aurre. Inbidia ematen duen egoeran gaude.

## Aurrera begira zer proposamen egiten dituzte?

Krisiari aurre egitea, enplegua sortzea, langabezi tasa ahal den baxuena uztea, I+G+B politikak bultzatzea eta zerga-politikari dagokionez gehien duenak gehiago eman beharko luke. PPren gobernutik egiten diren murrizketei aurre egitea eta horiek ez aplikatzea ere garrantzitsua da, Estatuaren gainontzean ikusten dela-



I.G.L.

ko murrizketa horiek egoera gehiago kaltetzen dutela. Ongizate estatua mantentzea oso garrantzitsua da: orain arte lortu dugunean ezin dira atzerapausoak egin, ez da posible zortzi hilabetetan 30 urte atzera egitea. Osasuna, hezkuntza eta oinarriko gizarte zerbitzuak sakratuak dira.

## Sindikatuetatik Patxi Lopezen gobernuari murrizketak egitea leporatu diote.

Zenbait gaietan, Eusko Jaurlaritza aurka egon arren, neurri ho-

riek inposatu daitezke. Hemen aplikatu ahal izan den gutxi hori, hain justu legezko inposaketa bidez izan da. Erkidego honetan osasuneko kopagoari inor baino gehiago ari gara aurre egiten.

## Tolosaldean ospitale publiko bat izateko eskaera dago. Zein da zuen iritzia?

Gustatuko litzaiuke publikoak izango balitz, baina egun egoera hori ezin bada gauzatu, guk defendatu dugu eta horrela gertatu da gainera, kalitatea ez jaiste. Ez dugu lehengo klinika berdina,

orain espezialitate gehiago ditugu. Eta inork ezin du esan osasuna pribatizatzen ari dela: Osakidetza txartelarekin joan naiz, eta osasun zentroan eta Asuncion klinikan artatu naute. Nik uste dut neurritz kanpoko kanpaina bat egiten dela; ez dira osasun eskubideak galdu eta ez dut uste galduko direnik.

## Langabeziaren arazoaren aurrean zer proposamen egiten duzue?

Enpresak babestea eta teknologia berrietan asko oinarritzea. Berrikuntzan apustua egin duten enpresak dira funtzionatzen dutenak. Bestalde, merkatu berriak bilatu behar dira. Enpresa guztiei, handitik hasita txikieneraino, gobernuak babestu egin behar die.

## Kanpainan gai nagusietako bat subiranotasuna da. Zein da PSE-EEren iritzia?

Hasteko, Katalunian sortu den eztabaida, oportunismo politikoa da guztiz. Masek independentziaren bandera ateratu du, gobernatzeko gai ez dela ikusi duenean. Eztabaida hauek artifizialak iruditzen zaizkit. Guk elkarbizitzaren alde egiten dugu, elkarren aurka egitea baino. Nik uste dut elkarbizitza bultzatu daitekeela, subiranotasunari eta independentziari heldu gabe. Gainera, egun dugun egoerarekin independentzia plan-

teatzea... Ez da konstituzioan ez dela sartzen, Europan ere ez da sartzen.

## AHTaren obren inguruan, zer aurreikuspen duzue?

Gu sartu ginenean Euskal Y-aren zati bakarra zegoen martxan, eta egun martxan egon zitezkeen 14 zatiak exekuzio fasean gaude. Obrak erritmo onean ari dira aurrera egiten eta 2016rako bukatuta egon direla diote aurreikuspenek. Guretzat berebiziko garrantzia duen obra bat da, Europarekin lotura ekarriko duena, aurrerapena eta garapena ekarriko duena.

## Euskararen erabileraren inguruan zer proposatzen duzue?

Patxi Lopezen gobernuari iritsi zenean, euskararen amaiera izango zela esaten zen. Ez da horrela gertatu. Euskara bultzatu eta bere alde egin da apustua, arlo guztietan. Arazoa da euskara gatazkarako erabiltzea: euskara gatazka politikoetatik atera behar da, ezin da erabili diskriminazio arma bat bezala. Gu ez gara behin ere euskararen kontra egongo, baina ez dugu inposaketarik nahi. **Euskarazko komunikabideek eskaera egin diote alderdi guztiei, edozein dela ere gobernatzen duena, diru laguntzak bermatzeko.**

Diru laguntza bermatuta daude udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Agian modu bat bilatu behar da gutxieneko diru laguntzak bermatzeko, baina agian ez da beti bizi behar diru laguntzen menpe. Aurrera egiteko beste modu batzuk bilatu beharko dira.

## EH Bildu eta EAJ aurrez aurre, euskarazko komunikabideen eskutik

Tolosan izango da eztabaida, gaur, Marian Beitialarrangoitiaren eta Maria Eugenia Arrizabalagaren artean

**I. Garcia Landa**

Tolosaldeko euskarazko komunikabideek buruz burukoa antolatu dute EH Bilduko Marian Beitialarrangoitiaren eta EAJko Maria Eugenia Arrizabalagaren artean. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA**, Galtzaundi, 28 Kana-la eta Txolarre irratia dira antolatzaleak, eta bi hautagaiak aurrez

aurre ariko dira gaur, 19:00etan hasita, Tolosako udaletxearen bartzar aretoan.

Marian Beitialarrangoitia EH Bilduko Gipuzkoako zerrendan hirugarren postuan doa eta leku berdinean doa Maria Eugenia Arrizabalaga EAJren Gipuzkoako zerrendan. Eztabaida bi parte hartzaileen aurkezpenarekin hasiko da. Ondoren lau atal izango dira: egoera ekonomikoa, gizarte gaiak, hizkuntza politika eta normalizazio politikoa. Antolatzaileek eskualdeko hainbat eragile gonbidatu dituzte eztabaidan parte hartzeko atalek irauten duten bitartean, besteak beste bi hautagaiei galderak zuzenduz.

Azkenik, aukera emango zaie buruz burukora joango diren herritarrei parte hartzeko. Eztabaida irekia da, beraz, eta nahi duten herritarrek joan ahal dira bertara. Buruz burukoa zuzenean jarraitu ahal da lau komunikabideetako webguneetan.

## Emaitzak, igandean bertan

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZak hauteskunde egunean eskualdeko emaitzen eta alderdien erreakzioen berri emango du *tolosaldea.hitza.info* helbidean. Eskualdeko herri bakoitzaren eta Tolosaldea osoaren emaitzak jasoko dira hauteskunde eguneko gauetan.

## Irudia ▶ Leaburu



## EH BILDURI BABESA

EH Bilduri babesera erakutsi zieten Leaburu igandean azoka egunean (argazkian). Bestalde, hauteskunde kanpainaren barruan bi autokarabana antolatu ditu EH Bilduk. Horietaatik lehenengo gaur izango da, Zizurkilen. 19:30ean abiatuko dira goiko aparkalekutik. Bestea Tolosan izango da, etzi, hilak 19. Olarrain auzotik aterako dira autoak, 19:30ean. **HITZA**



Iazko Txintxarri Egunean bi abesbatzek batera eskainitako saioaren una bat. EDUARDO ARRAYET

## Txintxarri Abesbatza kultur elkarteak bere eguna ospatuko du larunbatean

Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek kontzertua emango dute; ondoren afarian elkartuko dira

**Imanol Garcia Landa** Alegia

Txintxarri Abesbatza kultur elkarteak beste behin Txintxarri Eguna ospatuko du. Larunbatean izango da, hilak 20, eta ohi bezala, elizan emango den kontzertua izango da ekitaldi nagusia. Emanaldiaren ondoren izango den afariarekin borobilduko dute eguna, eta hor ere ez da musikarik faltako.

52 urte bete dira Txintxarri abesbatza sortu zenetik eta koruaren kideentzako Txintxarri Eguna izaten da urteko egunik berezietakoa. Garbiñe Orbegozozuzendariak azaldu duenez, «gure festa izaten da. Abesbatzak bazkideak ditu eta bereziki berarentzat egiten da emanaldia. Gonbidapena bidaltzen zaie etortzeko. Guretzat garrantzitsua da hor daudela jakitea».

Kontzertua elizan izango da,

19:45ean. Aurretik, 19:00etan, meza izango da hil diren abesbatzako kideen alde, eta bertan ere abestuko du koruak. Emanaldian, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek kantatuko dute. Txikien korua hasiko da eta hiru kanta abestuko dituzte. Horieta-ko bat Korrikaren abestietako bat izango da, beste bat Israelgo kanta bat, eta hirugarrena Maixa eta Itziar bikotearen *Iluntzean* abestia. Hain justu, azken honetan Maixa Lizarribarrek lagunduko die trikitixarekin.

Txintxarri herri kantak abestuko ditu, besteak beste, Xabier Leteren *Nafarroa* eta Pier Paul Berzaitzen *Baratze bat*. «Emanaldi atsegina egitea da helburua», esan du Orbegozok. Guztira zazpi abesti kantatuko dituzte. Azken abestia bi koruek batera egingo dute, Txomin Artolaren *Aberriaren mugak*, hain justu. Kontzertuan, pianoan laguntzen Marijare Rekondo izango da. Emanaldiak elizan egin ohi dituzte. «Erreberazio pixka bat badu, eta esker tzekoa da abesterakoan, ahotsa errazago ateratzen baita», dio abesbatzako zuzendariak.

Aurten lehenengo aldiz larun-

batean izango da Txintxarri Eguna. Igandean antolatu ohi dute, baina asteburu honetarako aurreikusitako zuten egitea eta egun horretan hauteskondeak zehaztu zituztenean, egun bat aurreratzea erabaki zuten. «Espero dugu aurten ere jendea kontzertura etortzea», esan du Orbegozok. Saioaren ondoren afaria egingo dute Txintxarri elkarteak. Afaria eta gero, abesteko aukera izango da. «Kantu liburuxkak banatu ohi ditugu, jendea abestera animatzeko», azaldu du.

### Elkartrukeak

Aurrera begira, Trintxerpeko abesbatzarekin elkartruke bat egin behar dute ikasturte honetan. Azaroaren 17an Alegiara etorriko dira trintxerpearrak eta Txintxarrikoak martxoan joan dira hara emanaldia egitera. Gabonetan ohiko kontzertua egingo dute.

Bestalde, Kataluniako Begues herriarekin elkartrukea osatzeko dute. «Aurreko urtean etorri ziren beraiek eta gu hara joatekoan gara, baina oraindik ez dugu erabaki noiz izango den», azaldu du Orbegozok.

## Hamabi etxebizitza tasatu egiteko asmoa dute Altzon

Izena emateko epea azaroaren 15a arte da; salneurria, garajea barne, 200.000 euro ingurukoa izango da

**I. Garcia Landa** Altzo

Altzoko Plan Orokorri jarraituz, Altzo Muñon, Segoretxe azpialdean edota Berakoetxea inguruan, 12 etxebizitza tasatu eraikitze espedientea martxan dagoela jakinarazi dute udaletik. Etxebizitza hauetan interesa dutenen zerrenda osatu nahirik, ize-

na emateko epea azaroaren 15a arte ireki da. Interesa dutenek udaletxean eman behar dute izena, bertara joanez edo udaleko 943 65 24 13 zenbakira deituz. Deialdia altzotarrei zein beste udalerrietako herritarrei zuzendutakoa da, eta Altzoko Udalak izena ematera animatzen ditu interesatuen guztiak.

Etxebizitzaren salneurria, garajea barne, 200.000 euro ingurukoa izango da. Neurria eta lekua zehaztu gabe daude oraindik. Etxebizitzak sarrera, sukaldea, egongela, 2 bainugela, 3 logela eta balkoia izango lituzke eta garajea itxia.

### → Laburrak

#### Kultur lantegietan izena emateko aukera, zabalik

**IBARRA** › Kultura Sailak 2012-2013 ikasturterako antolatu dituen hainbat kultur lantegietan izena emateko aukera dago oraindik ere. Ondorengo tailerrek antolatu dituzte: sabel-dantza, egur taila, ehoziriak, altzariak zaharberritzea eta konpontzea, pintura, eskulanak eta arropa konponketa. Prezioa ordaintzerakoan zenbait hobari zehatuta ditu udalak: gazte txartela duenarentzat %10a eta familia ugariko kide denarentzat %50a.

#### Herri batzarra eta kultur batzordeko bilera, gaur

**ALEGIA** › Alegiako Udalak herri batzarra egingo du, gaur, 19:30ean, udaletxean. Udaletik deialdia egin du herritarrek batzarrean parte hartzeko. Aurretik kultura batzordeak bilera egingo du, 18:30ean, kultur etxean.

#### Musika ikasteko aukera izango da Berrobin

**BERROBI** › Pianoa, bateria, gitara eta solfeo ikasteko aukera izango da ikasturte honetan Berrobin. Bost urtez gorako umeek zein helduek izena eman dezakete ikastaroan. Oraindik egunak zehazteko badaude ere, interesatuek udaletxean izena eman beharko dute. Antolatzailerik inguruko herrietako umeak ere animatzen dituzte parte hartzera.

#### Eskola, izarrak ikusteko irteerarako laguntza bila

**BERROBI** › Berrobiko eskolan unibertsuaren gaia lantzen ari dira. Eskolaren asmoetako bat ikasleekin eta gurasoekin izarrak ikusteko gaueko irteera bat antolatzea da. Horretarako deialdia egin du izarren inguruan zaletua den baten batek eskolarekin kontaktuan jartzeko, irteera horretan gida moduan laguntzeko. Interesa duenak Berrobiko eskolarekin harremanetan jarri daitezke 943 68 32 14 zenbakira deituz.

Soluzioak  
zure esku

BOZKATU ehbildu

# Aieteko Adierazpenaren lehen urteurrena betetzen da gaur

Donostiako Nazioarteko konferentzian adostu zuten adierazpena nazioarteko hainbat eragilek, 2011ko urriaren 17an

Eskualdeko bost herritarren hausnarketak bildu ditu HITZA egunkariak

## Asier Imaz

Nazioarteko hainbat eragilek, Euskal Herrian «bake iraunkorra» lortzeko helburuarekin, Aieteko Adierazpena sinatu zuten 2011ko urriaren 17an. Donostiako Bakearen Etxean egindako Nazioarteko konferentzian adostu ziren adierazpena osatzen duten bost puntu edo proposamenak. Besteak beste, ETARI jarduera armatuari amaiera ematea, Espainia eta Frantziako gobernuei negoziatzea eta alderdiei elkarren artean hitz egitea eskatzen zieten.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK, egunkariarekin lotura zuzena edo zeharkakoa izan duten herritarrei, urtebeteko ibilbidea duen bide orriaren inguruko hausnarketa eskatu die.



## Joxi Imaz

EHU-ko irakaslea

«Agenda hark proposatzen zituen bost puntuetatik bi bete dira urtebete honetan; beste hiru falta dira oraindik».

Joxi Imaz Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Ibartarren esanetan, duela urtebete Donostian gertatua, urrats garrantzitsua izan zen: «Aieteko Bake Konferentzia euskal gatazkaren konponbidea bilatzeko pauso garrantzitsua izan zen, nazioarteko politikari ezagun eta inpartzialek agenda zehatz bat proposatu zutelako». Hala ere, adierazpenaren hiru puntu betetzeko daudela gogoratzen du Imazek: «Urtebete honetan bi puntu bete dira, ETAK bere jardueraren behin betiko amaiera iragartzea, eta jarraipen batzordea ezartzea. Beste hiruak falta dira: Espainiako eta Frantziako gobernuek gatazka armatuaren ondorioez aritzeko elkarritzetak zabaltzea; eginko minaren aitortzea, biktima guztien aitortza eta beraien laguntzea,

eta adiskidetzan aurrera egiteko urrats sakonak ematea, eta ordezkari politikoak bildu daitezela gai politikoak eztabaidatzeko, herritargoa kontsultatuz».

Aurrera begira, Joxi Imazen ustez, erronka euskal abertzaleena da: «Euskal abertzaleok jarraitu beharko dugu hemendik aurrera ere bideak asmatzen eta probatzen, guri interesatzen baitzaigu bereziki gatazkaren konponbidean pausoak ematen jarraitzea». Espainia eta Frantziako agintarriengan ez dauka esperantza handiegirik Imazek: «Espainiar eta frantziar nazionalistak egoera bere horretan mantentzen saiatuko dira, hau da, Euskal Herria nazio menperatu bezala mantentzen; subordinazio egoera hori demokrazia, kosmopolitismoa, hiritartasuna edo postnazionalismoa bezalako ideiekin ezkututzen saiatuko diren arren».

Europar eta munduan, azkenaldian, mugimendu interesgarriak ikusten ditu: «Kolonbiako gatazka armatua konpontzeko elkarritzetak, eta Eskozia eta Katalunian 2014erako iragarri dituzten erreferendumeak». Hasierako puntura itzuliz amaitzen du hausnarketa Imazek, hitzetatik ekintzetara pasatzeko bideak proposatuz: «Guk ere borrokan eta indarra egiten jarraitu beharko dugu: maila instituzionalean, herri mugimenduan, konfrontazio ideologikoan... Eta baita eguneroko bizitzan ere: euskaldunak izaten saiatuz, gure buruak eta praktikak deskolonizatuz, espainiar eta frantziar estatuei eta nazionalismoei boikota eta desobedienciaz eginez...».



## Joxemari Iturralde

Idazlea

«Batzuek bi pauso eman beharko dituzte oraindik, beste batzuek, hiru. ETAK, esate baterako, iragarri beharko du bere desagertzea, argi eta garbi».

Joxemari Iturralde idazle tolosarraren ustez, urtebete honetan aurrerapausoak egon dira, eta orain hobeto bizi gara: «Urtebete joan da dagoeneko Aieteko adierazpena egin zenetik, urtebete joan da ETAK iragarri zuenetik indarkeria alboan utziko zuela. Hobeto gaude orain hiritarrok, hobeto, lasaingo, bizi izan gara hiritarrok urte honetan, eta bazen garaia! Hasi dira pausoak ematen, pauso gutxi oraindik, baina pausoak izan dira».

Oraindik urrats gehiago eman behar direla uste du Iturraldek: «Batzuek bi pauso eman beharko dituzte oraindik, beste batzuek, hiru. ETAK, esate baterako, iragarri beharko du, orain berandu baino lehen, bere desagertzea, argi eta garbi. Ez dauka inolako zentzurik, gaur egun, XXI. mendean, eta Europan behintzat ez, erakunde armatu baten existentziarik, hau da, ez dauka inolako zentzurik bere helburuak lortzeko jendea hil egiten duen eta indarra erabiltzen duen erakunde baten existentziarik. Aspaldi esan nuen: hitza erabili behar da».

Aieteko Adierazpenaren aurrera egiteko, behin eta berriz hitza aldarrikatzen du idazle tolosarra: «Hitz egin dezatela Madril eta Parisen, elkartu daitezela partidu politiko guztiak eta has daitezela mintzatzen. Hitz egitea beti dago ondo, hitza behar dugu, ez indarkeria».



## Mirentxu Etxeberria

Tolosako alkate ohia

«Proposamen onak planteatu ziren, baina gutxi aurreratu da; denok ez baldin badugu aurrera bultzatzen, zaila izango da».

Mirentxu Etxeberria Tolosako alkate ohia gutxi aurreratu dela uste du azken urte honetan: «Proposamen onak planteatu ziren adierazpenean, baina gutxi aurreratu da. Denok ez baldin badugu aurrera bultzatzen, zaila izango da; ez du balio batzuek bakarrik bultzatzea, edo denok egiten dugu, edo ez da aurrera joango». Etxeberriaren ustez, ETAK eginko kaltea handia izan da azken hamarkadetan, eta ez da nahikoa «sentitzen dut» esate hutsa; Tolosako alkate ohientzat ETA gatazka «gehiago aurreratu genuen».



## Koldobika Jauregi

Artista

«Ez da bakearen inguruko hausnarketarik egin, zeren horrela izan balitz, dagoeneko pentsatzen egongo ginatke Euskal Herrian kokaturik dauden zenbait arma fabrika nola itxi, edo gutxienez zalantzan jartzen».

Koldobika Jauregi artista alkazarren ustez, denek espero zuten zerba it izan zen adierazpena, baina oraindik ez dira urrats guztiak eman: «Bakearen inguruan tirabira gehiegi daude, eta betikoa da, interesak daude; bai politikoak eta baita ekonomikoak ere, jendearn gainetik pasatzen direnak».

Urtebete honen balantzea egiterakoan, Aieteko Adierazpenaren aurretik, berak eginko gogoreta bat berreskuratu nahi izan du: «Aurrez, su etena eta abar gertatu zenean, barbarotzat jotzen zituzten. Orduan esan nuen, berriro berdina errepikatu behar dut: Ados, espero dezagun barbaro horiek armak uztea, eta zibilizata dagoen jendeak bere arma fabrikak ixtea. Barbaroek utzi zituzten, eta zibilizatuek ez dute ezer egin. Ez hori bakarrik, aipatu ere ez dute egiten. Horrek esan nahi du gure gizartea ez dela baketsua. Esperientzia latz horretatik, alde guztiakotako bultzatzaileari naiz, ez da bakearen inguruko hausnarketa bat egin, zeren horrela izan balitz, dagoeneko pentsatzen egongo ginatke Euskal Herrian kokaturik dauden zenbait arma fabrika nola itxi, edo gutxienez zalantzan jartzen. Bakea nahi dugu, baina zein motatako bakea?».



## Eneritz Otamendi

EHNEko kidea

«Urriaren 17a eta 20a letra larriz idatzita daude gure herriaren

historian, eta nago, urriaren 21a ere horrela geldituko dela; ezkortasunean murgildu nahi gaituztenei baikortasunarekin muturrean emango diegulako».

Eneritz Otamendi EHNEko kide orendaindarrak, azkenik, Aieteko Adierazpena mugarririk moduko bat izan zela dio: «Kartzelan dauden batzuk eta ez dauden beste askok ahalbidetu zuten eszenatokiak ekarri zuten Aieteko Bake Konferentzia. Inflexio puntu hitza, gastatu samarra dagoen arren, nire ustez hori izan zen azko urriaren 17an plazaratu zena. Ibilbide orri bat genuen esku artean».

Adierazpenaren aurretik eta ondoren, bakearen norabidean emandako urrats guztiak, alde bakarrekoak izan direla dio Otamendik: «Hori etsigarri samarra da. PSOEk gobernu utzi aurretik eman zitzaizkeen urratsak eman gabe utzi izana etsigarria izan zen; eta ezkorra da baita ere, PSE eta EA Jren jarrera, bake konferentzian parte hartu arren, han onartu ziren 3. eta 4. puntuakin inolako zerikusirik ez balute bezala jokatzaren dutelako. Gero PP dator, herri baten borondate gero eta ozenago bati nola aurre egin ez dakielako, formula zaharrei atxikitua».

EHNEko kidearen esanetan, orain arteko formulek ez dute balio, eta «PPk Aieteko 2. puntuari entzungor egiten jarraitzen badu, larunbatean Arnaldo Otegi EH Bilduk BEC-en eskaini zuten mitinean esan zuten bezala, aukera bat egiten ari da, herri hau zuzenean independentziarako bidean jartzea, alegia. Hobe luke Mariano Raxoik Eskoziatik datorren haizeari eta Estrasburgotik datozkion kokotekoei kasu egingo balie, bestela bere bakar eta handi hori esku artean urtuko zaio, eta berak uste baino lehen».

Eneritz Otamendiren esanetan, Aieteko Adierazpenaren data, eta hiru egunetara ETA erakundeak egin zuten iragarpenaren data, letra larriz idatzita daude Euskal Herriaren historian, eta urriaren 21a ere bide horretan kokatzen du.

«Urriaren 17a eta 20a letra larriz idatzita daude gure herriaren historian, eta nago urriaren 21a ere hala geratuko dela. Ezkortasunean murgildu nahi gaituztenei baikortasunarekin muturrean emango diegulako», adierazi du EHNE sindikatuko kideak.

# Gazteei zuzendutako etxeen esleipen prozesuari ekin dio Ibarako Udalak

18 eta 35 urte arteko ibartarrek galdetegia dute eskuragarri gaurtik aurrera; datorren astean batzarra egingo dute

Iñigo Terradillos Ibarra

Hilabete eta erdi barru bukatuko dituzte Beheko Biden egiten ari diren eraikinaren obrak. Gazteei zuzenduriko 32 etxebizitza izango ditu, eta Ibarako Udalak ekin dio horiek banatzeko prozesuari. Lehendabizi azterketa bat egingo du, herrian egun dagoen beharra eta eskaera ikusteko, eta ondoren, jasotako datuen arabera zehaztuko ditu zozketaren nondik norakoak.

Zuzkidura izaeraz alokairuan esleituiko diren etxebizitza horiek nori eskainiak izango diren jakiteko, galdetegi bat egin du udalak. Etxebizitza hauetan interesa duten 18 eta 35 urte bitarteko ibartarrek galdetegi hori bete beharko dute. Gisa horretan, jakin ahalko dute zer nolako eskaera dagoen Ibaran, eta eskatzaileen profila nolakoa den.

Galdetegian norbere datuak jarri beharko ditu interesatuak,

egungo bizilekua, egoera zibila, seme-alabarik duen ala ez edota pertsonaren bat bere kargu duen ere zehaztu beharko du.

Gaurtik aurrera egongo da galdetegia eskuragarri Ibarako udaletxean nahiz kultur etxean, eta sarean, Ibarako Udalaren web orrian ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)). Urriaren 31 izango da entregatzeko azken eguna.

Bestalde, sor daitezkeen zalantzak argitze aldera, datorren asteartean urriaren 23an batzarra egingo dute, Ibarako kultur etxean. Batzarra egin, galdetegia burutu eta emaitzak aztertu ostean, zehaztuko lirarteke etxebizitzak esleitzeko zozketaren inguruko ezaugarriak, eta datorren urteko urtarrila edo otsaila inguruan espero dute zozketa egin eta etxebizitzak esleitzea.

## Gela bakarrekokoak eta bikoak

Gazteei zuzenduriko 32 etxebizitza izango ditu denera eraikin berriak. 28 etxebizitza 33 m<sup>2</sup>ko azalera dutenak izango dira, eta logela, sukalde-egongela eta komuna izango dituzte. Bi etxebizitzak 46 m<sup>2</sup>ko azalera izango dute, eta bi logela, sukalde-egongela eta komuna dituzte. Gainerako biak mugikortasun urritasuna duten

herritarrentzat zuzenduak izango dira. Sukaldea eta komuna hornituta izango dute, eta gainerako gelak hutsik egongo dira, hau da, altzaririk gabe. Etxebizitza guztiak dute trastelekua, sotoan, eta garajea, berriz, aukeran.

Bi gelako etxebizitzak seme-alabak edota pertsonen bat euren kargu dutenentzat zuzenduak izango dira. Bikote eta norbanakoentzat dira, bestalde, gela bakarrekoko etxebizitzak.

## Best urterako alokairuak

18 eta 35 urte bitarteko herritarrek dute etxebizitza hauetara bizi zera joatzeko aukera. Ibaran erroldatuta egon behar dute egun, edota azken hamar urteetan erroldatuta egondakoak izan behar dute, diru sarrerak 3.000 eurotik 39.000 euro bitartekoak izan behar dute, eta ez dute etxebizitza jabetzan eduki behar.

Etxebizitzak alokairuan esleitzeko dira, 5 urterako, eta epe hori gaitzuta, etxebizitza utzi beharko da.

Alokairuagatik diru sarreraren arabera kanon bat ordainduko da. Era berean, norberak etxebizitzari dagozkion gastuak, hala nola, argindarra, ura, gasa edota hondakinen tasa eta komunitate



Ibarako Udaleko ordezkariak, atzo, prozesua azaltzen. I.TERRADILLOS

## ↓ Datuak

■ **Azterketa.** 18 eta 35 urte arteko gazteen artean egun dagoen eskaera ezagutu asmo du Ibarako Udalak. Horretarako galdetegiak prestatu ditu.

■ **Galdetegia.** Etxebizitzetan interesa duenak udaletxean, kultur etxean nahiz sarean ([ibarrakoudala.net](http://ibarrakoudala.net))

eskuratu ahalko du. Urriaren 31 baino lehen entregatu behar da.

■ **Batzarra.** Zalantzak argitzeko batzarra urriaren 23an izango da, kultur etxean, 19:30ean.

■ **Zozketa.** Urtarrila edo otsailaren egitea aurreikusitako udalak.

## Ekimen aitzindari

Eskaerak ordaindu beharko ditu. Eta horrez gain, etxebizitzaren edukinari dagokion arrisku anitzetarako aseguruia ere kontratatu beharko du.

Hala, 3.000 eurotik 15.000 euro bitarteko diru sarrera dutenentzat 150 euro gela bakarrekoen kasuan eta 180 bi gela dituztenen kasuan litzateke alokairua. Aldiz, 39.000 euro inguruko diru sarrera dutenek 350 eta 420 euro bitarte ordainduko lukete.

Garajea alokatzea hautatzen dutenen kasuan, hilero 60 euro ordainduko dute, garajeari dagozkion gastuak korrontea eta komunitate gastuekin batera.

Peñagarikanoren esanetan, etxebizitza hauek ibartarrentzat izatea da helburua. «Gurasoen etxea utzi, eta gazte haurrentzat lehendabiziko etxebizitza izatea da ideia».

# Ibarako merkatariek bizkarra emango diote krisiari

Azaroaren 17ra bitarte egindako erosketengatik deskontuak eta opariak izango dira

I. Terradillos Ibarra

Ibarako merkatariek erantzun «irmoa eta sakona» eman nahi diote bizi dugun krisi egoerari, eta horretarako *Ibaran krisiaren gaitetik gaude* lelopean kanpaina abiarazi dute. Mezu positiboak helarazi nahi dizkiete herritarrei, eta horrela «gaitzuta eta atzean utzi» ahalko dutela adierazi dute.

Mezu edo jarrera baikor hori herritarrei zabaltze aldera, kanpaina berri honetan parte hartzen duten merkatarien elkarte dendetan erosteagatik eskaintza bereziak izango ditu erosleak. Eskaintza berezi horiek opariak edota deskontuak izan daitezke. Era berean, ekimen honekin herritarrek bat egin nahi dutela

azaldu dute, eta «euren egunerokotasunean lagundu».

Bada, gaurtik aurrera kanpainaren inguruko eskuorria topatu ahalko dute ibartarrek merkatarien elkarteko denda eta tabernetan. Ekimena datorren astelehenan, urriaren 22an hasiko da, eta azaroaren 17ra arte iraungo du.

Era askotariko eskaintzak topatu ahalko ditu erosleak. Esaterako, Zubiaurre janaridendan, Joakin, Nazabal eta Joxe Mari Barriola harategietan, San Bartolome eta Ibarburu dendetan eta Lurdes liburutegian 20 euroko erosketa egiteagatik, oparia jasoko du. Eugenio Uranga harategian pixua asmatuz gero doan izan daiteke erosketa, eta Vision

optikan 69 euroko erosketarekin errebisioa izango da doan, eta betaurrekoak erosita, bigarrenak doan. Izarra garajean, Kiribil ileapaindegian, Mafre aseguru-etxean, Zugasti eta Eisha arropa dendetan, Errotatxo okindegian, Karlatz garagardotegian eta Dannon Txokoa jatetxean ere eskaintzak eta opariak izango dira.

## Argazki Lehiaketa

Bestalde, Ibarra Azoka eta Piparra azoka berezian gaztetxoentzako argazki lehiaketa egin zuen merkatariek elkarteak. Saioa Fernandez de Antona eta Irune Iraola izan dira elkarteko dendetan erabiltzeko 50 euroko erosketa bost irabazi dutenak.



Merkatariek elkarteko kideak argazki lehiaketako irabazleekin, atzo, it.

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti nahi jatetxea

Garaian garaiko janariak Arraikietan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementerri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



SOS Haur Lapurtuak taldeko kideek, iaz Tolosan burrututako elkarretaratze bat. A. IMAZ

## Espainiako Gobernuari salaketa jarriko diote haur lapurtuen senideek

SOS Haur Lapurtuak-eko Aranzabek dio Euskal Herrian ere, Espainian bezala, kasuak artxibatuko dituztela

**Itzea Urkizu** Tolosa

Espainiako Gobernuari Argentinatik salaketa jarriko diotela azaldu du Juan Bautista Aranzabe *Mate*, SOS Haur Lapurtuak taldeko boluntario tolosarrak.

Lapurtutako haurren hainbat kasu artxibatu dituzte azken asteotan Espainian, eta Euskal Herrian ere gauzak bide beretik doazela dio Aranzabek: «Aspaldi honetan, hedabideak-eta gutxi mugitu dira, eta gainera, orain arte azaldu diren kasu guztiak artxibatzen ari dira fiskalak, denbora asko pasa delako, frogarik ez dutelako, eta abar».

Hau guztia «ez da zuzena», Juan Bautista Aranzabe eta gainerako senideen ustez. «Hala ere, orain aurrerapauso bat emango dugu, izan ere, salaketa aurkeztuko diogu Espainiako Estatuari. Argentinako gobernuak salaketa jarriko dio Espainiakoari, haur lapurtuen biktimak frankismoaren biktimak direla eta».

### Argentinari jarraituz

Aranzabek azaldu duenez, «ate guztietan jo behar da horrelakoe-tan, eta Argentinan antzeko kasuak gertatu zirenez, badakite horrelako kontuak nola joan behar duten». Horrela beraz, hango abokatu bat edo besterekin hitz egin dute, hemengo kasuak azter ditzan.

1976 eta 1983 urteen artean diktadurapean bizi izan ziren Argentinan, eta milaka herritarren desagertzearekin batera, haur jaioberri asko lapurtu zituzten.

Horren harira, haur haien guztien nortasuna berreskuratzeko, Abuelas de la Plaza de Mayo eta Madres de la Plaza de Mayo elkarteak sortu zituzten; desagertu ziren 500 haurretatik, 105 aurkitzea lortu dute.

SOS Haur Lapurtuak elkarte-ko kideentzat «garrantzitsua» da salaketarena, «nolabaiteko itxaropena pizten duelako», Juan Bautista Aranzaberen arabera. «Ez dakit azkenean zer aterako den hortik, baina aurrera jarraitu behar dugu, atzera ezin da begiratu».

### Kasuak baliogabetzat

Haur lapurtuen kasu asko artxibatu dituzte fiskalak Espainian, azken asteotan. Euskal Herrian ere, gauza bera egiten ari direla dio Aranzabek. Kasuak artxibatzearekin batera, gainera, «beste kasu asko baliogabetzat» jo nahi dituztela nabarmendu du Aran-

zabek: «Hori ezinezkoa da, giza-diaren kontrako krimenak dira».

Egoera geldotu egin dela uste dute senideek eta boluntarioek: «Nabaritzen da jendea aspertu egiten dela, ez baitute aurrerapausorik ikusten, eta jendeak amore ematen du».

### Baliabide ekonomikoak

Aurrera jarraitzeko baliabide ekonomikoak ere oso beharrezkoak direla dio Aranzabek, eta hori arazo bilakatzen dela azken finean: «Gutxienez 3.000 euro behar dira kasu bat aztertu eta aurrera eramateko, eta oso posiblea da inolako ondorioirik ez ateratzea. Epaiketara joatea, errekursoak aurkezte eta halakoak, abokatuak egin behar izaten ditu, eta noski, ez dute lana dohainik egiten; egia da, batzuek merkeago lan egiten dutela guretzako, baina ez muxutruk».

Horrela beraz, familia asko «lo-

tuta» daudela uste du Juan Bautista Aranzabe boluntarioak, «eta hori, arazo larria da».

Baliabide faltari, gainera, etsipena ere gehitu zaio zenbait kasutan, Aranzaberen arabera: «Emakume askok esaten dute paperik nahiz dokumenturik ez dutela, eta egia da; askok ez dakite haurra neska edo mutila ote zen ere, eta zer egin zioten ere ez. Ez dakite ezer. Eta honek guztiak go-go kentzen du aurrera jarraitzeko».

Hala eta guztiz ere, Aranzabe tolosarrak beren eskubideen alde lanean jarraitu behar dutela uste du: «Nik emakume eta familia guztiei gauza bera esaten diet: ez errotzeko, baina ez uzteko. Egutero kontu berarekin bueltaka erotu egin zaitezke, baina ezin da utzi; susmoa baldin badago, ho-

**Argentinan antzeko kasuak gertatu ziren, eta hango abokatuekin lanean ari dira**

**Kasuak «gizadiaren kontrako krimenak» direla dio Aranzabek, eta ezin direla artxibatu**

**Aurrera jarraitzeko baliabide ekonomikoak behar dituzte familiek**

rrek aurrera egin behar du». Besteak beste, beren seme-alabak zein diren edo zein ziren jakiteko eskubidea aldarrikatu zu Aranzabek: «Bestela, gure susmoak eta kezak hor geratuko dira betirako». Bide horretan, euren aurrerapausoak ematen jarraitzearekin batera, seme-alabek ere lan egin behar dela uste du boluntarioak: «Gure eskuetan baino gehiago, gure seme-alaben eskuetan dago, bizi baldin badira behinik behin. Haiek egin behar dute DNAREN proba, eta baita DNA erkatu ere. Baliteke eurek nahi ez izatea ere».

Horrenbestez, beren kasua aztertzeko lanean eta aldarrikapenetan jarraitzeko deia egin du Aranzabek, salaketarekiko itxaropena azalduz.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarritako  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



≈ 25°  
≈ 17°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	EKAITZA
BEROENA	25°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaurdi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen etairitzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Kasino elkarteak antolatutako Mikologia Astearen barruan gaur, 17:20ean, mahai ingurua egingo dute *Regulación micológica: esta es la cuestión* izenpean.
- **Tolosa.** Iurre elkarteak larunbaterako antolatutako bertso afarirako txartelak eskuratzeko 680 27 35 83 (Alex Perurena) telefonora deitu behar da.
- **Alegia.** Adinekoak zaintzeko eta prebentziorako hitzaldia egingo dute, gaur, 17:00etan, kultur etxean. Sutondo zerbitzua ere aurkeztuko dute.

### ERAKUSKETA

- **Tolosa.** Box.A elkartearen *Pornografía* izeneko erakusketa, Aranburu jauregian.
- **Tolosa.** Mariona Masgrauren txotxongilariaren lanak bilduz dituen *Mariona Masgrau. Bidaia bat txotxongiloen mundura* erakusketa, Topic zentroan.
- **Alegia.** Jose Enrike Zeberioaren margolanak ikusi daitezke hila-bete bukaerara are, erretirodunen tabernan.

## Agurrak

### AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

# Pello Aranburuk irabazi du Argazki Lehiaketa

Aitzol Doyharzabalek bigarren saria eskuratu du, eta Urko Ormaetxeak hirugarrena

### Rebeka Calvo

Erabakia zaila izan den arren, XVI. Hitza Argazki Lehiaketak baditu irabazleak. Lehen saria, hau da, Elantxobeko Ogoño mendian landetxean bi pertsonentzako bi gaueko egonaldia Pello Aranburuk irabazi du; bigarren saria, Tolosako Photofaferen eskutik argazki album analogikoa egiteko aukera, Aitzol Doyharzabalek eskuratu du; eta hirugarren Urko Ormaetxeak egin du, eta Tolosako Orue erretegiaren bi pertsonentzako otordua egin ahal izango du. Era berean, bozka eman duten harpidedunen artean HITZA produktu sorta bat zozketatu dugu eta Joseba Amianok irabazi du. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaria jarriko da harremanetan irabazleekin sariak nola eskuratu behar dituzten argitzeko. Besterik gabe, zorionak irabazleei eta gozatu sariekin!

### Argazki asko eta ederrak

Lehiaketako edizio honetan ere argazki asko eta oso ederrak jaso ditu egunkariak, eta eskerrak eman beharrean dago, bai argazkia bidali duten guztiei eta baita ondoren ere, zortzi finalistak aukeratuta, bozka eman duten guztiei ere.

Hurrengo lehiaketa, hamazazpigarrena, Aste Santuko jaiak eta gero egingo da, eta bertan ere parte hartze handia izango delakoan, ordura arte!



### ↓ Argazkiak

- **1. argazkia.** Pello Aranburuk lehen saria irabazi du Errioxan hartutako irudi honekin.
- **2. argazkia.** Aitzol Doyharzabalek bigarren saria eskuratu du Alpeetan ateratako argazki honekin.
- **3. argazkia.** Urko Ormaetxeak Vietnamgo Quan Lan irlan ateratu zuen argazki honekin irabazi du hirugarren saria.

**ADI EGON, egun gutxi barru prest izango baititugu mauek**

**Mauka berria**

Ensay izena [www.mauka.eu](http://www.mauka.eu) atarian eta parte hartu bidaia baten zozketan

EROSKI **mauek** zurekin